

BERRIGARA

134. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1994, urtarrilak 21

**ERRET
MINTEGIKO
BILDUJMA
ZIENTIFIKOA
BERRIZTEN**

**LARUNBAT
GOIZEKO
"MARTXA"
BERGARAN**

KIROLAK

**IKER
ETXEBARRIA ETA
MARTIN DE
PEDRO
AKONKAGUATIK
BUELTAN**



**Mendia Bizirik
taldearen
liburua kalean**

J.R. AIHARIZA



OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.

**NIRE AUTOA BAZINA AUTO
HAU IZANGO
ZINATEKE.**

**OPEL CORSA
NIRE AUTOA**



**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN:
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

PRESTAKUNTZA PLANA

IKASTAROAK

IKASGAIAK

- WORD-PERFECT (Testu tratamendua)
- Dbase IV (Datu basea)
- LOTUS 1, 2, 3 (Kalkulo orria)
- OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA
- AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK
- ORDENAGAILU BIDEZ LAGUNDUTAKO DISEINUA
- ZENBAKIZKO KONTROLA "Fresa"
- ZENBAKIZKO KONTROLA "Tornua"

IRAUPENA/HASIERA

40 ordu	31-1-94
40 ordu	3-3-94
40 ordu	25-4-94
40 ordu	28-2-94
40 ordu	25-4-94
100 ordu	31-1-94
40 ordu	25-4-94
40 ordu	31-1-94



INFORMAZIOA:
Migel ALTUNA INSTITUTOA (Bergara).
Tfnoa: 76 24 91. Faxe: 76 38 41.



Migel ALTUNA

Institutua

Bergara

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babelea: Bergarako Udala.

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, Juan
Martin Elexpuru, Josu Oregi,
Maripi Laskurain, Nerea Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa,
Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Aitziber Aretxaga,
Ainhoa Bikuña, Asier
Madinabeitia, Josune Inarra eta
Ane Miren Goenaga.

Argazki laborategia:

Poi-Poi Argazki Taldea eta Kifü.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.500 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK



Hotza eta elurra izan dira asteko protagon-
nistak. Euskal Herriko
bazter guztietan tempera-
tura hotzak izan dira na-
gusi eta Bergaran ere iaz-
ko zein aurtengo tenpe-
ratura hotzenak eman di-
ra. Luis Mari Agirre Nar-
baizabolukoak eman diz-
kigun datuen arabera, as-
teazkenean 4 gradu zero

azpitik neurtu ziren eta
ostegunean, berriz, ter-
mometroak -3 gradutako
minima markatu zuen.

Elurra ere heldu zaigu:
astelehen arratsaldean
eta ostegun goizean her-
riko kale eta teilatuak
txuritu zituen, berehala
urtu bazen ere. Elosurako
kaminoa moztuta egon
zen asteartean.

**Termometroak 4 gradu zero azpitik
markatu ditu**

ITURRI ONETIK

Ortonovokoak Bergarara

Bergarako pintoreek 1992ko udan Ortonovon (Italia)
erakusketa egin eta gero, Ortonovoko artisten
erakusketa antolatuko du Udalak Pazkuetako jaien
ostean. Oraindik zehaztu gabe dago zenbat artista
(guztiak eskultoreak) etorriko diren baina baliteke,
beraien lanak Kultur Etxean ikusgai egon ondoren,
Gipuzkoan zehar erakusketa ibiltaria antolatzea
italiarren lanekin. Horixe bera egin zen bergararrek
Italiarako prestatu zuten erakusketarekin.

ESAN DUTE

"Gizakiok ditugun
gaixotasun asko
janariak eragindakoak
dira. Horregatik
ohiturak aldatu behar
ditugu, hainbeste
koipe, proteina eta gatz
jan beharrean,
kaltegarriak zaizkigun
janari horiek gutxiago
jan beharko genituzke.
Norberaren gorputzari
zerk egiten dion kalte
ikusi, zeren gorputz
guztiak ez dira
berdinak, eta horren
arabera elikatu"

ALBERTO ALTUBE
Barazkijalea
ETB

"Miserableak" musikal
bat da eta ez opera bat.
Musikalek askoz ere
erraztasun haundiagoa
ematen dute itzultzeko
orduan, askoz ere
popularragoak
direlako. Operak,
ordea, askoz ere
estatikoagoak dira."

VALEN MOÑUX
"Miserableak"eko
eszena arduraduna.
ARRASATE PRESS



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

**Beheko
Taberna**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ZUBIETA

elektragintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



Santiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83



ALGO PARA RECORDAR

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



LA FAMILIA ADDAMS

Igandea: 11.30.



▼▼ **Saskibalo** 3
partidu jokatu dira
larunbatean
Labegaraietako
Kiroldegian: Bergara-
Aloña Mendi (kadete
neskak 11etan),
Aranzadi Ikastola-
Antzuola (infantil
mutlak, 12.30etan)
eta Bergara-Fortuna
(jubenil mutlak,
16.00etan).

Zinea

▼▼ **Nora Ephron**
*Cuando Harry
encontró a Sally*
edota *Silkwood*
filmeen idazlea
oraingoan filmea
idatzi eta zuzentzera
ausartu da. Komedia
erromantiko honetan
Meg Ryan eta **Tom
Hanks** dira aktore
nagusiak; azken
honen semeak biak
elkartuko ditu irratia
programa bati esker.

▼▼ **Charles
Addams**ek sortutako
pertsonaietan
oinarritutako filma
(lehen zatia).
Umore beltza zinea-
ren haria delarik,
famiariaren dirutza
jokoan izango da.
Anjelica Huston
(*Morticia Addams*)
eta **Raul Julia**
(*Gomez*)ekin.

Deiak

▼ **San Bixente jaiak Par-
teittin (Angiozarren)**. Igandean
12etan meza eta ondoren luncha
eta dantza.

▼ **II. Komiki Lehiaketako**
lanak Kultur Etxean ikusgai urta-
rrilaren 21etik 30era bitartean.

▼ **Mendi irteera**. Pol-Pol
Mendizale Taldeak antolatuta igan-
dean, hilak 23, Mugarrara irteera.
Irteera goizeko 8.30etan autobus
geltokitik.

▼ **Mus txapelketa**. Larunba-
tean, hilak 29, San Blaseko V. Mus
Txapelketa 16.00etan (izen-eameta
ordu erdi lehenago).

Ogia

▼ **Igandea 23**: Mizpildi.

**GOARDIAKO
FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 22**: Estella/
Corcuera.
- ▼ **Igandea 23**: Estella/Irizar.
- ▼ **Astelehena 24**: Mozos/
Amezua.
- ▼ **Asteartea 25**: Camacho/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 26**: Puy/Morales.
- ▼ **Osteguna 27**: Guallar/
Azkoaga.
- ▼ **Ostirala 28**: Estella/Corcuera.

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 **BERGARA**



▼▼ **AEKren aldeko bertso jaialdia** izango da larunbatean, gaueko 10.30etan, Mariaren Lagundian. Bertsoan Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Estitxu Arozena, Aitor Sarasua (beharbada Jon bere anaiak ordezkatu du) eta Unai Iturriaga arituko dira. Gai-jartzaile, berriz, Gabixola. Sarrerak 500 pta.tan Pol-Pol taberna, Arrasateko ERDU-AEK euskaltegia eta Oñatiko Pako tabernan jarri dira salgai.

5**PROFESIONALAK**

- Soroa III eta Oregi / Goñi eta Lasa III.
- Etxaniz eta Errasti / Urionaguena eta Galarza III.
- Gabilondo eta Errasti II / Badiola II eta Andueza VI.

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pelotalekuan.



Urionaguenak Galarzarekin jokatu du.

KIROL

KARTELDEGIA

PELOTA**BERGARA-ESKORIATZA**

Kadeteak binaka

BERGARA-OÑATI

Seniorrak binaka

(Gipuzkoako Kopako distritoko finalaurreak).

BERGARA-BILBO

Euskal Liga. Jubenil banaka Ostiralean 9etan Pelotalekuan.

BERGARA-AZPEITIA

Euskal Liga. Jubenil binaka

Aurretik infanti! eta jubenilen

lagunarteko bi partidu.

Larunbatean 18.00etan Osintxun.

FUTBOLA**BERGARA-GAZTEAK**

2. mailako jubenilak

Larunbatean 15.30etan Ipintzan.

BERGARA-ANTONIANO

Lehen mailako jubenilak

Larunbatean 17.30etan Ipintzan.

BERGARA-ALOÑA-MENDI

Lehen mailako infantilak

Igandean 10etan Ipintzan.

BERGARA-ANTZUOLA

2. mailako kadeteak

Igandean 11.30etan Ipintzan.

BERGARA-ROTETA

Preferente maila

Igandean 15.45etan Agorrosinen.

BERGARA-ORDIZIA

Lehen mailako kadeteak

Igandean 17.30etan Ipintzan.

FUTBOL ESKOLARRA larunbat
goizean Ipintzan.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Udaleko Gobernu Batzordeari

Azken Berrigaran bergarakoek eduki genuen aukera Eginen aurka zuek hartutako neurriak ezagutzeko. Zuen gutunean bereziki bi puntu ilun samar gerezan dira, nire ustez.

1. Ondo esaten duzuenez "Salaketak Epaitegietan aurkeztu behar dira...". Halere, kasu honetan, epaiketarik izan aurretik, Gobernu Batzordeak bere kabuz datuen azterketa egin ez, kondena determinatu eta bete egin du.

2. Zuen gutunean ez da aipatzen erabakitze orduan bergatarren iritzia, eta batez ere informatzeko ditugun eskubideak, kontutan hartu dituzuen. Zehatzen bergatarrok erosten dugu Egin egunero? Zeintzuk dira bergatarrek garen aldetik gure eskubideak? Kontutan hartu duzue, zuen erabakiak gure aurka ere jotzen duela?

Jaunok, epaiketarik izan aurretik,
a. Zein oinarriekin eta zein helburu lortzeko asmoz galerazten diguzue Egin irakurtzen dugunoi hemengo informazioa ezagutzea?

b. Zein oinarriekin eta zein helburu lortzeko asmoz behartzen gaituzue irakurri nahi ez ditugun egunkariak erostera?

c. Agian ahaztu zaizue irakurle kontziente eta burutsuak garela; bai gure

erabakiak eta aukerak hartzeko gai garela; eta, kasu honetan, Egin irakurtzeko arrazoi onak dauzkagula?

Uste dut, bergatar guztiak merezi dugula aurreko galdera guztiak zuek erantzutea. Baita Bergaran saltzen diren egunkari guztien kopuruak ezagutzea.

Erantzuna hurrengo Berrigaran aurkituko dugulakoan.

Nora Palmitano

Bergarako Udala eta Egin

Pasa den 1993ko abenduaren 9ko Udal Gobernu Batzordean, Victoriano Gallastegiren proposamenari jarraituz, Egin egunkaria ez erosteko, Udal honetako informaziorik egunkari honi ez emateko eta aipatutako egunkarian iragarkirik ez kaleratzeko, hartutako erabakiaren kontrako jarrera agertu nahi dugu.

Alkate jaunari eta bere gobernuko kideei gogorarazi nahi diegu Egin egunkaria gure herriko iritzi korrante baten adierazle dela, editoriala sektore herrikoian babesagatik nabarmentzen dela, eta milaka irakurleri esker bizi den egunkari legala dela guztiz.

Horrexegatik, honako galderak egiten ditugu: nor zarete zuek diru publikoa horrela erabiltzeko? Egunkari hori irakurtzen duena ez al da zergapekoa? Nor zarete

zuek auzitegien pareko epaiak eman eta Egin aurrez kondenatzeko? Zer gertatu da, ustez, errugabetzat hartzeko eskubideaz? Eginek ez al du halako eskubiderik?

Argi dago egunkari hau deuseztatzeko daukaguen gogoia. Eguna joan eta eguna etorri zuen gustuko ez diren salaketak agertzen dituelako edo sortua. Izan ere hain gustuko duzuen egia ofizialaren morrontzara ohituak baitzaudete.

Adierazpen askatasuna ez dago zuen eskuetan, eta penagarria litzateke herri honetako hainbat irakurleri egokien iruditzen zaion tokitik informazioa jasotzeko eskubidea ukatzea.

LABeko Saitatal Sindikala

Miserableak-eko argazkilariak

Pasa den astean Berrigarak "Miserableak" ikuskizunari eskeinutako portadako eta erreportaian agertzen ziren argazkietako batzuk Dani Santos eta Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kideek ateratakoak ziren.

BERRIGARA

Tiira ba!



Josu Okino

BERRIGARA gida

Etxez etxe banatu ondoren, datorren astean Berrigara Gida 1994 lantegietan banatzeari ekingo diogu. Bestalde, akats batengatik, *Telefono interesgarriak* sailaren barruan Migel Altuna Lanbide Heziketako telefonoa sartzea ahaztu zitzaigun. Bertako telefono zenbakia 762491 duzue.

Askari epaiketa

Asteartean, hilak 25, Miguel Angel Askasibar "Aska" bergararra epaituko dute (bi epaiketa izango ditu) Madrileko Auzitegi Nazionalean. Bergararik autobus bat aterako da, gaueko 3retan Frontoitik. Joateko interesa duten guztiek beren izena eman dezakete Arranon.

Laborategiko piezak berritzen

Seminarioko Bilduma Zientifikoa erreperatzen ari dira

Erret Mintegiko Bilduma Zientifikoaren hainbat pieza berritu egin berri dira. Bilduma Zientifikoa 4 sailetan banatzen da: giza anatomia, aparailu zientifikoak, zoolojia eta, azkenik, mineralak eta fosilak.

Giza anatomia sekzioaren egoera txarra zela eta, Donostiako Kalicot enpresak giza begiaren modelo (1896, D'Auzoux medikuak egina), giza muskulatura eta erraiak, giza belarriaren modelo, giza laringearen modelo, giza kraneo eta giza barailaren piezak berritatu ditu. Ondoren, inbentariatu eta katalogatze lanari ekin zaio.

Xabier Aranburu udal museologoa dugu laborategiko arduraduna. Berekin batera Rosa Errazkin (zientzia eta teknika aparailuekin) eta Iñaki Irizar eta Nere Amaia Lascurain (zoolojia eta giza anatomia) ari dira lanean. Aranbururen esanetan,



Xabier Aranburu giza muskulo eta erraien modeloarekin.

"orain aparailuekin ere ari gara erreperazio lana egiten. Dagoeneko 186 identifikatu ditugu eta horiek aztertu eta katalogatu egin behar dugu lehenbizi. Zoolojarik salari dagokionez, ia guztiak identifikatuta daude (% 95a) eta batzuk berrituz egin beharko dira.

Pieza bakoitza sakontasunaz aztertu eta ondoren taxidermista on batek konpondu beharko ditu txarto daudenak".

Mineral eta fosilekin, berriz, ez da aparteko lanik egin eta datorren urtean geologo eta paleontologo bat kontratatzeko asmoa dago.



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

EZPELETA etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

Etxeberria erlojudendaren zozketa

Etxeberria erlojudendak egindako zozketan, 7.935 zenbakiak 200.000 pta.ko saria eskuratu du. Ana Laskurain zen zenbakiaren jabea. Mila Agirrezabalek, berriz, 100.000 pta. irabazi ditu 560 zenbakiari esker.

Bideo ikastaroa

Islada bideo tailerrak bideo ikastaroa iragarri du otsailaren 2 eta martxoaren 30erako. Ikastaroa bi fasetan egingo da; oinarrizko kontzeptuak ikusi ondoren, bigarren fasean ikasleek proiektu bat landu beharko dute. Klaseak astearte, asteazken eta ostegunetan arratsaldeko betan izango dira eta ikastaroaren prezioa 4.000 pta.koa da (2.000 langabetuentzat). Izena emateko epea urtarrilaren 27an bukatuko da.

Mendi bizikleta

Euskal Telebistak eskaini eta Euskadiko Open txapelketarako baliogarria izango den mendi bizikleta proba jokatu da urtarrilaren 30ean, goizeko 11etan, Uberan.



ARA berreskura dezagun EUSKARA berre...

Juan Mari Mendizabal, Ainhoa Lete eta Iñigo Martinez astearteko aurkezpenean.

AEKren euskaltegia martxan

Gaur 7etan inauguratuko da Masterrekako lokala

Bergarako AEKk otsailean irekiko duen euskaltegiaren aurkezpena egin zen asteartean Kultur Etxean. Bertan, Juan Mari Mendizabal Gipuzkoako AEKko ardura-duna eta Ainhoa Lete eta Iñigo Martinez AEKko laguntzaileak izan ziren, "euskaltegia euskarari beste bultzada bat emateko asmoz" zabalduko dela adieraziz. Ainhoa Letek esan zuenez, "herritarren % 70a euskalduna da Bergaran baina erabilera asko jeisten da. Gainera kontutuan izan behar da eus-

kaldunen artean alfabetatu gabeko jende asko dagoela eta euskaldundu gabeko jende dexente ere bai. Horregatik bi euskaltegi zaitoktia badagoela uste dugu".

Ikasturtea otsailetik ekainera izango da, maila guztiak emango dira eta matrikula egiteko interesa duten guztiek AEKk Masterreka 13ko behean duen lokalera jo edota 760518 telefonora dei dezakete.

Larunbatean AEKren aldeko bertso jaialdia izango da Mariaren Lagundian, gaueko 10.30etan.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50


FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65 BERGARA



Epoimahaiaik marrazkien kalitatea, argudioa eta euskara maila izan ditu kontutan.

Komiki lehiaketako emaitzak

Sari banaketa ostiralean, hilak 21, 8etan Kultur Etxean

JARDUNeko Gazte Taldeak antolatutako komiki lehiaketan, lehen taldean Jon Alvarez eta Gorka Ortégak irabazi dute *Denborarekin jolasean* lanarekin (10.000 pta.) eta 2. saria (6.000) *ex-aequo* lortu dute Ohiar Vega eta Ion Gurutze Biterik alde batetik (*Gaztetxeko makina*) eta Josu Otaegi, Garikoitz Badiola, Gaizka Esparza eta Garikoitz Garitanok bestetik (*Joselito lapurraren abenturak*). Akzesita: *Unai jinasioan* (Amaia Unzurrunzaga, Ainhoa Lekuona, Naiara Beistegi eta

Nerea Arrese). 2. taldean, berriz, Mireia Olabek irabazi du lehen saria (15.000 pta.) *Anderren komerixak* lanari esker eta bigarrena (10.000) Ander Aretxaga eta Rafa Herranentzat izan da (*Anbroxtoren gorabeherak*). Akzesita: *Hard times* (Enrique Lz. de Arroiabe).

Azkenik, 3. taldean Bittor Rodriguezek irabazi du (*Behin batean Bergaran*, 35.000 pta) eta German Larrañaga bigarren izan da (*Bergarasik park*, 25.000). Akzesita: *Kris* (Alex Ugalde).

Bergarako Txirrindulari elkartearen deia

Bergarako Txirrindulari Elkartearen bazkide kanpaina martxan da dagoeneko eta lehendik izena emanda dutenei elkartetik pasatzeko dei egiten zaie, ingresoaren erresguardoa eramanez, lizentzia berriak eman ahal izateko. Era berean, zikloturismoa edota mendi-bizikleta egiteko interesa duten guztiak elkartera (Seminarioko baxuetan, Plazan) jo dezakete larunbatetan 12etatik ordu batera edota astelehenetan 7etatik 8etara.

Jubilatuena oharrak

Insersoak balnearioetara antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko izena emateko epea urtarrilaren 31n bukatuko da. Interesatuak gizarte laguntzailearengana jo beharko dute astelehen, asteazken edota ostegunetan 10.30etatik ordu batera edota 3retatik 4retara. Terapia okupazionalaren barruan, berriz, eskulanak, margolaritza, yoga, sukaldaritza eta koruko ikastaroak emango dira aurten. Bertan parte hartzeko (korukoan ezik) 500 pta. ordaindu beharko dira.

IRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

ITXASMENDI
Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

LAN ESKAINTZA

JARDUNek, gazteria arloan lan egiteko, PERTSONA BAT hartuko luke. Interesatuak bidali kurrikulumak urtarrilaren 24a baino lehen JARDUN Elkartera (Masterreka, 13).

BALDINTZAK:

- Ezinbestekoa izango da **bergararra izatea**.
- Beste gauza batzuen artean **JARDUNeko bazkide izatea** baloratuko da.

II. KOMIKI LEHIAKETA

SARI BANAKETA:

Ostiral honetan, hilak 21, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean

II. KOMIKI LEHIAKETako sari banaketa egingo da.

ERAKUSKETA:

Ostiralean bertan zabalduko da II. KOMIKI LEHIAKETARA aurkeztutako lanen erakusketa Kultur Etxean. Hil bukaera arte izango da zabalik.



27an, Greba Orokorra!!

ELA eta LAB sindikatuek hilaren 27an Greba Orokorra egitera dei egiten diote herri osoari. Egun horretan eguerdiko 12etan San Martin Plazan eskualdeko manifestazioa izango da. Gobernuak ezarri nahi dituen neurrien aurka. Goizeko lehen ordutik pikete informatiboak antolatuko dira.

Adi egon, gure etorkizuna jokoan dago!!

Bergarako ELA eta LAB

Euskal Herriko ingurugiroa aztertzen duen liburua egin du Mendia Bizirikek

Liburua ostiralean 7etan aurkeztuko da Pol-Polen

Gaur arratsaldean Pol-Polen aurkeztekoa zen Mendia Bizirikek, Euskal Mendi Federazioaren eta Euskal Herriko hainbat mendi elkarteren laguntzaz landutako "Mendia eta ingurugiroa Euskal Herrian" liburua.

Liburua Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak argitaratu du eta bertan Hego Euskal Herriko mendien egoeraren berri ematen da. Iñaki Irizar Mendia Bizirikeko kideak esaten duenez, "ekologjiaren aldetik zein arazo dauden jakiteko lan bat egin nahi zuen Euskal Mendizale Federakundeak. Hortik abiatuta, hainbat mendizale talderi, gidoi bati jarraituz, beren inguruko mendiei buruzko lanak eskeini zitzaizkien (Pol-Polek Soraluezuekin batera Karakate, Hirukurutzeta eta Elosumendi aztertu zituen) eta gero Mendia Bizirikek lanak biltzeari



Mendia Bizirikeko partaideek 1992ko irailean ekin zioten informazioa batzeari.

ekin zion. Lan batzuk beste batzuk baino sakonagoak ziren eta ikuspegi orokorra ematen saiatu gara".

Mendia esplotatuta

Liburuan jasotzen denez, Euskal Herriko mendien egoera ez da onegia; "mendia oso esplotatuta dago: egurra lortzeko, ganaua hazteko, ebizarako, kiroletarako... Erabilera oso intentsiboa da gainera eta

borren ondorioz mendia bere naturaltasuna galtzen ari da. Pistak egiten dira toki askotan eta mendiari atera nahi zaion errentagarritasunaren arazoa (tabernak esaterako) ere hor dago". Tokian tokiko egoera aztertzerakoan Mendia Bizirikekoek 3 maila bereizten dituzte; "Nafarroa nabiko egoera onean da bere arazoak dituen arren, Araba Nafarroa baino pixkat atzerago legoke eta ondoren egoera

txarrenean diren Gipuzkoa eta Bizkaia. Azken bi hauen kasuan administrazioak geratzen diren gune natural apurrak babestera jo du; gure ustez hori oso ondo dago baina gainontzekoa ez da abaztu behar eta hori konpontzea eskatzen dugu. Antenen kasuan adibidez, planifikazio orokor bat egon beharrian bakoitzak berea egiten du eta guztia antenez betetzen ari da".

Hala ere, Iñakim Irizarrek adierazten dutenez, ez dute salaketa liburu bat egin nahi izan; "batez ere ikuspegi didaktikoa ematen saiatu gara, mendiak azken 2.000 urtetan izan duen eboluzioa azalduz eta gaurko egoeraren analisi bat eta Euskal Herrian ematen diren ekosistema ezberdinak ezagutzera eman". Testuez gain, liburuaren 120 orrialdeetan argazkiak eta Iñaki Iturbe bergararrak eginiko marrazki asko dira. 4.000 ale kaleratu dira (2.000 euskaraz eta beste horrenbeste erdaraz) eta liburudendetan aurki dezakezue 2.000 pta.ren truke.

SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Bergara larunbat goizetan

Larunbatean kanpotarrek herria "hartzen" dute goizean goizetik

Larunbat goizetan gure herriaren biztanle kopurua gehitu egiten da kanpotik etorritako jendearekin. Batez ere UNEDera joaten diren ikasleekin eta Zurraderon postua jartzen duten komertzianteeekin. Horrek, dudarik ez, herriari bizitasuna ematen dio eta tabernari eta udaltzainei lana gehitzen die.



UNEDek ikasle asko ekaritzen ditu zapatu goizetan.

Larunbatero goizeko 8'30etan Zurradero kaleko merkataria postuak jartzen dauden bitartean, UNEDeko ikasleak Mariaren Lagundian eta Seminarioan biltzen dira klaseak hartzeko. Goizeko zortziak eta bederatziak bitartean Ibargarai eta Mariaren Lagundiko inguruak kotxez betetzen dira eta horrekin batera Udaltzainek trafikoa zuzentzen nahikoa lan izaten dute. "Zapatu goizetan jende asko etortzen da eta aparkatzeko arazoak izaten dira. Goizeko 8etatik 9'30etara bitartean jendetza izugarria etortzen da eta beti gainean izan behar gaa" dio Iñaki Labaka udaltzainak.

Larunbat goizetan lau udaltzain arduratzen dira trafikoa zuzentzeaz eta Labakak esan digunez, "azken urteotan trafikoa

gehitu egin da eta Ibargarai da arazorik gehien sortzen digun kalea. Kontutan izan hor dau dela, Eroski, Merkatua eta larunbatetako merkatura".

"Krisia asko igartzen da"

Udaltzainari bere lanean utzi ondoren Zurradero kaleko "merkadillo"ra jo dugu. Han, goizeko bederatziak inguruan saltzaileek bere traste guztiak atera ondoren Gasteiztik, Ermutik, Errenteriatik e.a.etik etorritako saltzaileak jendearen zai daude. "Lehen jende gehiago zebilen. Ez dakit zergatik izango den baina krisiak bere eragina izango du eta plazatik hona etortzeak ere uste dut kalte egin digula" diosku Jose Maria Cebrian

urretxuarrak gure herrira 10 urtez zapaturu etorri izan denak. Merkatuak urte hobeak ezagutu ditu, batez ere duela lau urte edo. "Bai, Bergarara etorri nintzenezan lehen bost urteetan ez ginen oso ondo ibili, baina gero lau urte onak izan genituen, baina azken bi urteetan asko bajatu da... gehiegi" dio Cebrianek. Merkatura joateko faktore asko daude, baina garrantzitsuenetarikoa eguraldia izaten da. "Bezera finokak baditugu, nahiz eta jende gaztea gutxiago etorri. Gaur ikusten duzun moduan -pasa den asteko larunbat goizean ez du eguraldi onik egiten eta horregatik ez dabil jende asko. Gainera lehen erroa ekartzen genuen eta saldu egiten zen, baina orain saltzeko doblea ekarri eta gutxia-

go erosten dute" dio Cebrianek. Zurraderon dauden beste saltzaile batzuren ere izan gara eta guztiek azpimarratu digute lehen baino jende gutxiago dabilela.

Izugarritzko jendetza UNEDen

Ibargarai kaleko mugimendua utzi dugu eta goizeko 11k aldean plazatik Mariaren Lagundiko bitarteko bidean gero eta jende gehiago dabil. UNEDek Seminarioan dituen bulegoetara jo dugu eta ikastetxeak duen ikasle kopurua eskatu diogun idazkariari. "Guztira karerra bat egiten edo antolatzen ditugun ikastaro berezietan 1.945 ikasle ditugu. Horietatik erdia, gutxi gorabehera, larunbat goizetan Bergarara etortzen da" adierazi digu

Beatriz Urzelai idazkariak. Datu horiek jaso ondoren Mariaren Lagundira joan gara, han UNEDeko Euskara Saileko klaseak eta karrerako klaseak ematen baitira. Heldu garenean Euskara Saileko ikasle eta irakasleak atsedendaldian daude eta Eibartik etorritako Asier Alzelairekin berba egin dugu. "Ni etortzen naiz EGA ateratzeko asmoarekin, baina uste dut luzerako dudala. Hona ikastera etortzen gara, baina izaten dugu denborarik kafetxo bat edo baritze-ko". Bere ikaskidea den Marijo Altuna ondarrutar-
rak ere EGA ikastera etortzen dela adierazi digu "Ondarrutik goizeko 8'15etan irtetzen gara eta ordu bata arte klasean izaten gara. Nire herrian ez dut astirik klasea joateko eta hona kotoxe batean beste hiru lagunekin etortzen naiz".

Dena den, UNEDeko Euskara Sailak, hasi zenetik, 1980tik aurrera Udal Euskaltegien eta beste ikastetxe batzuen gehikuntzagatik bere ikasle kopurua gutxitua ikusi du azken urteotan. Bien bitartean, Mariaren Lagundiko pasiloetan klasea sartzeko prest Patxi Zabaleta donostiarra aurkitu dugu. "Bergara Unibertsitatara sartzeko kurtsoa egitera etortzen naiz. Donostian EHUa badugu, baina karrera bat egiteko orduan aukera murriztuak eskaintzen ditu, hemen aukera gehiago daude" diosku bankan lan egiten duen donostiarrak. Zabaletari galdetu diogu ez zaion harrigarria pentsatzen gure herriak larunbat goizetan agertzen duen mugimendua: "Ez, normala

da zeren UNEDek eskaintzen dituen zerbitzuak oso zabalak baitira eta Bergarara herri askotako jendea etortzen da".

Tabernetan Jendeak berbera

Gure herriko larunbat goizetako "martxa"rekin jarraituz tabernetara joan gara eta eguerdiko ordu bata arte kanpotarrak nagusi direla ikusi ahal izan dugu. Halere Juanjo Basterra Ariznoakoak dioskenez "duela 6-7 urte jende gehiago zebilen. Lehen orain ditugun kamarero bikoitzak genituen eta baxera ere doblea erabiltzen genuen. Goizeko 12etan edo taza eta plater guztiak erabilita genituen, orain, berriz, jende gutxiago dabil". Kortazar tabernan ere izan ginen eta Migel Mendibilek, bertako nagusiak, esan zigunez "Larunbat goizetan UNEDesker jende gehiago etortzen da. Halere merkatua plazatik kendu zutenetik, gurean behintzat jendea gutxitu eginda. Uste dut

Kanpotik etorritako bi

Patxi Flores Sakanan (Nafarroa) dagoen Izarrabengoatik UNEDeko Euskara Sailak eskaintzen dituen Sakontze klaseak hartzera etortzen da. "Aurten bigarren urtea dut Bergarara etortzen naizela. Larunbat goizero 7'15etan jaiki eta hona beste 3 lagunekin etortzen naiz, bidaiak ordubete irauten du eta bi mendate pasa behar ditugu. Baina oso gustora etortzen gara eta uste dut merezi duela" esan digu nafarrak. Sakontzeko klaseek lau ordu irauten dute eta Floresek dioenez "lehenengo ordua nahiko

gogorra egiten da, baina gero atsedendaldian pintxoren bat edo jaten dugu eta goiza erraz pasatzen da. Gainera gezurra dirudi Bergara bezalako herri batek horrelako giroa izatea larunbat goiz batean". Mailu Aramendi getariarra da eta UNEDen unibertsitatara sartzeko ikastaroa egiten ari da. "Bergaran oso gustora nago, herria polita da eta kafea hartzeko orduan giro ona izaten da. Gainera jende berria ezagutzeko aukera ere badago" esan digu getariarrak.



Patxi Flores



Mailu Aramendi

UNEDA tabernariontzat garri dela, hanpoko jende eta dendarientzat onura-asko etortzen baita".



Zurraderoko merkatuan eguerdiko 12etan jende ugari biltzen da.



**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU


☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

**Urtarrilaren 27-ko Greba Orokorrari
buruz ze iritzi daukazu?**



Joxepi Larrañaga
52 urte, etxeakoandrea

Oso ondo iruditzen zait, egoera ekonomikoa ez da ona eta gazteria egoera larrian dago eta. Zeozer egin behar da.



Angel Herran
69 urte, jubilatua

Ekonomia nola dagoen kontutan hartuta huelga egiteko momenturik onena ez dela uste dut.



Manuel Fernandez
26 urte, langilea

Beharrezkoa dela uste dut, Gobernua pasatzen ari da eta "kaña" pixkat eman behar zaiola uste dut. Nik greba egingo dut.



Uxue Zabaleta
19 urte, ikaslea

Egoera oso kaxkarra da eta zeozer egin behar dela uste dut, ez dakit bide egokia den ala ez baina zerbait egin beharra dago.



**Otsailean, plazak dauden
taldeetan integratu ahal
izateko matrikula epea
zabalik, 24tik 28ra bitartean**

**Bulego orduak: 8.30-12.30
14.30-18.30**

Zabalotegi, 13 Telefonoa eta Faxe: 76 44 53



Suizak txuriago garbitzen

Lortuko al dute Jean Ziegler jauna, beldurraren beldurrez, mutu bihurtzerik? edota akatzerik? Irakasle eta Ginebrako diputatu sozialista den honek 1990ean "Suizak txuriago garbitzen du" lana argitara eman duenetik hamaikatxo epaiketa jasan behar izan ditu. Izan ere aipatu lanak munduko mafiek Suizako banka sistemak hainbaterainoko pisua dutela majo salatu du, sistema berak munduko gizaki pobreen izerdia eta diruapurraren lapurketan partehartzen duela erakutsiz. Eta hori gutxi bada, egia epelak eta borobilak esatera etorri zaigun hau parlamentutik kanporatu dute.

Munduko herri txiki eta zapalduekin kezkatu, Congo eta Brasileko umeen lagunarteak aberasturik heldu zen politikara, duela hogei urte Che Guevarak esanari kasu eginez: "Zure borroka lekua Mamutzarren burua da". Eta ez da esan behar zuena esateko zurikerian eta itzulginguruka ibili. Gobernuen politikan eta jokabideetan guztiok alde aurretik genekiena jakinaren gainean jarriz indartsuen haserre petrala atera du azalera. Jakina, jakin badakigu Erensugeari aurre egiteak ezer onik ekartzen ez duenik nahiz burgesa, unibertsitaria, suizarra eta txikia izan. "Zorua da bere kaltetan/ argi bila dabilena gauza ilunetan".

Ainhoa Altuna



Zure aukera berria

Bada bai euskara dela eta gure herrian egin beharreko hainbat lan. Hori dela eta, azkenean, AEKren euskaltegi bat zabalduko da Bergaran. Bi urte pasatu behar izan dira AEKren euskaltegi bat gure artean berriz izateko, baina oztopoak oztopo, iritsi da unea.

Eta orain, AEKren laguntzarekin euskararen dorrea eraikitzeke beharrezko diren bi zutabeak trinkotasunez jaso behar ditugu, euskalduntze eta alfabetatzea hain zuzen ere. Askotan, badirudi euskaltea euskara ezagutzen ez duen jendearentzat dela bakarrik, baina ez dut uste hori horrela denik. Euskaltegiak euskalduntze prozesuan lan asko egin beharrean daude, baina badago betetzen duten beste arlo bat ere: alfabetatzea. Gure artean, nahiz eta euskara hitzegin, alfabetatu gabè dagoen jende ugari dago. Arlo hori betetzea, eta euskaldun guztiak alfabetatzea euskararen normalizaziorako zutabe garrantzitsu bat dela deritzot.

Eta kontutan izan behar dugu, zutabe bat behar besteko trinkotasunarekin jasotzen ez bada, ez dela gai izango eutsi beharreko zamari eusteko. Eta ez da lan erreza gure hizkuntzak jasan behar izaten dituen ekaitzen erdian zutik irautea! Beraz, denok dakigu gure egin beharrekoa. Eta orain aukera berri bat dugu Bergaran ere. Aprobetxa ezazu, hau da zure aukera. Ez dezagun ahaztu euskara euskaldunok egiten dugula.

Ainhoa Lete

AGOITZ *Tapizdenda*

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA



LASA **JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

LARRAÑAGA *eta ZUBIA*

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

ARREGI


Eraikuntza **materialeak**

Biltegia Tellerlan, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

Mujika

Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak


Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

DENA

100etik


ZURE OPARIANTZAKO

Simon Arrieta, 3



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



□ Txirrindularitza zuzendari ikastaroa

Larunbatean eman zitzaion hasiera Migel Altuna Institutuan Gipuzkoako Txirrindulari Elkargoak eta Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek antolatutako txirrindularitza zuzendari ikastaroari. Aurkezpenean Jose Luls Arrieta Gipuzkoako Federazioko presidentea izan zen (argazkian Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduraduna eta Antton Gorrotxategi ikastaroaren koordinatzailearen artean) eta ikastaroaren garrantzia gogoratu zien bertan parte hartuko duten 22 gazteei (horietatik 3 bergarar). Ikastaroa otsailaren 12ra arte luzatuko da eta amaieran azterketa bat gainditu beharko dute ikasleek. Hortik aurrera, euskal txirrindularitzaren etorkizuneko izarrak lantzeraz...



□ Aratuzteak!!

Malder Muñoz 19 urteko gaztea dugu Udaleko Jai Batzordeak Aratuztetako programaren azalerako konbokatutako kartel lehiaketako irabazlea. Epaimahaiak aurkeztutako 10 lanen artean Mainerrena aukeratu zuen eta, beraz, bere lanak igarriko digu laister gero eta gertuago diren Karnabalen etorrera. Gainera, 50.000 pta.ko saria eramango du Mainerrek. Zorionak!!



Makilatu nahi eta ez badakizu nola, edo zure estiloa aldatu nahian bazabiltza, **LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** zeure burua makilatzeko ikastaroak eskeintzen dizkizugu, profesional batek zuzenduta.

Informa zaitetz 76 31 71 telefono zenbakian edota bisita gaitzazu Bergarako Bidekurutzeta kaleko 7. zenbakian, lehen pisuan. Ikastaroaren prezioa: 5.000 pta. Plaza mugatuak.

Umore giroan

Bankua jotia, kiebria!

Gazteixo batzuk pelotan ikasten ziarduen Astelena pelotal ekuian maisu batekin. Ertz baten, an zeguan bankua, pelotarixak biar izaten daben esparadrapu, eskufapu, pelota ta abar eukitzeko.

Baziarduan maixuak "pitxaria" zelan egin biar dan erakusten. Eta or-mabixak, eta atzera baztertzea...

Onetan, gaztetxo batek esatetsa:

- Zu, maixu, txapia jotia zer da?
- Txapia jotia faltia dok.
- Ta bankua jotia?
- Bankua jotia? Ori kiebria dok, txotxo!

Gauza sekretua

Bazan Eibar inguruetan "auto-batzaille" bat, beti zeozer kontatzeko eukitzen zebana. Dana, gaifera, sekretu moduan kontatzen zeban.

Egun baten, esatetsa lagun bati:


- Ara, egixa dok, baiñan esaixok ifñori esan. Sekretu moduan esaten deuat...

Lagunak:

- Zer, euk kontatu bietsek daneri ala?

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Alai taldeak Aranzadi Ikastolaren aldeko jaialdian parte hartu zuen orain 20 urte.

Ikastolaren aldeko musika jaialdi ikusgarria Frontoian


Gaur gaueko 10.30etan Aranzadi Ikastolak antolatutako musika jaialdi ikusgarria izango da Udal Pelotalekuan. Bertan Umore Ona eta Alai taldeek, biak herriko abesbatzak, parte hartuko dute eta euren emanaldien tartean Urretxindorrek talde bergararren aurkezpen ofiziala ere egingo da, kide batzuk soldaduskan zirela eta urteetan ez baitira jendaurrera atera. Oraingoan Urretxindorrek, osatuago kaleratzen da, gaur egun sei baitira gazte partaideak; lehengo Julio Unamuno, Raul Calvo, Juan Mari Narvaez eta Gotzon Bikuñaz gain Xabier Oregi eta Javier Unamuno. Urretxindorrek-ek lehengo kanta moldeei jarraiki, kanta bilduma berri eta zabala aurkezten digu eta arrakasta haundiak opa dizkiegu.

Aipamen berezia merezi du, lagun taldetik sortu den Alai Talde berriak ere, orain bi urte Radio San Sebastianek antolatutako lehiaketan hirugarren saria lortu zuenak. Partaide berriekin, eta lehen aldiz jendaurrean kantatuko duten gazte hauek ere, gustoko izango zaizkio, zalantzarik gabe, entzulegoari.

Justo Idigoras maisuaren zuzendaritzapean amestutako arrakasta lortuko dute.

La Voz de España. 1974-I-26. Bikuña.

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak**



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

anezka

**Udazkenerako oihalak
eta lenzeria**

Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.

Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

HAGIN KLINIKA

BERGARA

Bidekurutzela, 6 2. (Lehengo Notarian)
☎ 76 05 77

ODONTOLOGIA

OROKORRA

HAGIN AZTERKETAK

PROTESIAK

HAGIN ESTETIKA

LEHEN AZTERKETA DOAN!!

BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



LORENZO LOIDI

LORENZO LOIDI irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOan Anglozar auzoa zen argazkian agertzen zena eta abenduaren 27an San Juan Txiki eguna ospatzen dute bertan. Erantzun asko jaso ditugu baina batek saria eraman behar eta Lorenzori tokatu zaio orainoan. Berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Lorenzori** eta besteok jokatzeko jarraitu behar saria lortu arte. Suerte!!

Zein da "Etxe haundi" bezala ezagutzen dugun etxe honen izena eta zein bi kale lotzen ditu etxe aurreko zubi honek?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



ELKAR

Arruriaga 1, behea BERGARA ☎ 76 58 16



- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- PLASTIFIKAZIOAK
- PLANOEN KOPIAK
- JENDEARENTZAKO FAXA

- ENKUADERNAZIOAK
- Termo-enkolatuak
- Burdinazko espiralak
- Plastikozko espiralak
- Fazikuloak



ESKAINTZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.

Akonkaguatik bueltan

Iker Etxebarria eta Martin De Pedrok ezin izan dute gailurra (6.959 m.) lortu


Aste honetan bueltatu dira Akonkaguatik Iker Etxebarria (21 urte) eta Martin De Pedro (28) bergararrak (oraindik bada herriko beste espedizio bat han). Ezin izan dute gailurra lortu baina esperientzia guztiz aberatsa izan zaie.

Abenduaren 27an abiatu ziren Argentina aldera Iker eta Martin (beste 4 lagunekin batera), Natura Iruñeako kolektibo batek antolatutako irteeran. Santiago de Chiler heldu eta handik Akonkaguarako bidea hartu zuten; "Confluencian zegoen lehendabiziko kanpoa (3.200 m.) eta hegoaldeko paretako kanpo basea 4.200 m.ra zegoen. Confluencian egiten genuen lo eta 3. egunean Plaza Mulas, kanpo basera ailegatu ginen (4.300 m.). Han Gabon zabar eguna ospatu genuen hango beste mendizale batzukin eta ordurako gailurra lortu eta jeisten ari zen Felipe Uriarteren taldearekin. Urteberri egunean atseden hartu genuen eta hortik aurrera goiko kanpoetara joan etorriak egiten ge-

nituen aklimatzaeko".

Ondo aklimatitzea da, hain zuzen ere, gailurra lortu ahal izateko gakoa Iker eta Martinen eritziz; "bala da, lan aspergarria eta neketsua da baina ezinbestekoa. Neska aleman bat ere hil da gaizki aklimatzeagatik eta japonesekek ere arazo asko izan zituzten gauzak azkar egin nahi izateagatik. Eta lotsagarria da erreskate talderik ez egotea Akonkaguan. Bestalde, distantziek asko en gainatzen zaituzte: tontorra ia beti bistan duzu baina dimentsioak izugarriak dira, 40 minututan egitea espero duzun aldapa beharbada 4 ordutan egiten duzu. Gauzak pazientziaz egin behar dira, abalik eta alaturago abalik eta polikiago beltzea eta ondo jan eta edan. Bestela teknikoki mendi erreza da, ez du zailtasun baundirik".

12 bat egun aklimatitzen eman zituzten Martinek eta Ikerrek eta Nido de Condoreseko (5.560 m.) kanpamentutik pentsatu zuten gailurra atakitzea. "Hurrengo kanpamentua (Berlin) 300



Iker (ezkerrekoa) eta Martin. Atzean, Akonkaguako gailurra.

bat metro gorago zegoen baina gaizki lo egiten dabant eta nahiago genuen ondo lo egitea eta beheragotik hastera atakea".

-30 gradu

Nidon dendetan -19 °C-ko dendan eta -30 graduko temperaturak jasan behar izan zituzten eta Berlingo kanpoan Martini bi hankak izoztu zitzaizkion; "oso ondo nenbilen baina bi ordutan izoztu zitzaizkidan. Zalantzan geunden gora edo behera egin eta eskerrak jeistea erabaki genuela".

Martin lehenago bueltatu behar izan zen lehen graduko konjelazioak zi-

rela medio eta urtarrilaren 11n Ikerrek eta beste espediziokideek atakea egin zuten; "eguna oso ona zen baina presioak asko jeitsi zuen eta gure barometroak ez zuen ezer markatu. Oso ahulduta ginen, magnesio faltagatik ere arazoak nituen eta atzera egin behar izan genuen. Ondoren beste atake bat egitekotan ginen baina ez genuen astirik izan eta hor amaitu zen guztia".

Martinek badu oraindik bueltatzeko asmoa, "eskura duzun zerbair delako" baina Ikerren ustez "ez da hainbeste egun merezi duen mendia Akonkagua".

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Lagun koadrila Intxortan

Ez da hau inongo ospakizun haunditan ateratako argazkia; mendi-ibilera arrunt batekoa dugu. Gara batean igandero joan ohi zen koadrila hau mendira eta haietako batean beren ibileren oroitzapena gerorak jasotzea pentsatu zuten. Argazkia 1967koa da. Bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Makurtuta: Bittor Alberdi, Jose Garitano eta Lete.

Zutik: Jose Luis Kapanaga, Inazio Gillegi, Alberto Lonbide, Imanol Zabaleta, Luis "Andaluza" eta Jesus "E Satelite".

Estepan Plazaola
Argazkia: Inazio Gillegi

ETXAGI JATETXEA

Etxagi Jatetxeak eginiko Gabon saskiaren zozketan, 8.036 zenbakia izan da saritua. Argazkian agertzen den Iruñe Gabilondok eraman zuen saria.

Masterreka 8, ☎ 76 53 12



ETXEBIZITZA

Garajea alokatzen da Iargarai kalean. ☎ 76 13 93.

Etxebizitza salgai Iparra-girre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua alokatzen da Matxiategin. ☎ 79 37 97.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Garajea hartuko nuke alokalruan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Etxea salgai Katabian. ☎ 76 56 20 (gauzez).

Garajea salgai Iparragiren. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatzen da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Mugerzan etxea salgai. 101 m2. Garaje, terraza, lorategi eta ortuarekin. ☎ 76 12 86.

Etxe bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

Garajea salgai Sta. Mari-nan. ☎ 76 43 89.

Garajea salgai Iargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Etxea salgai Masterrekan. ☎ 76 48 30.

Bi neskekin pisua konpartituko nuke Matxiategin. ☎ 76 46 15.

DENETARIK

Omega erloju bat galdu dut. Doratua eta narruzko korreaduna. ☎ 76 27 83.

Talbot Samba (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

Viallaroo PK50 motoa salgai. Berria. ☎ 763386.

Baserril bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peugeot 205 kotxea salgai (SS-X). ☎ 760905.

Petrikilo, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Sega Megadrive salgai. 4 jokurekin. ☎ 76 25 12.

Grabadu beltzak dituen zilarrezko pultsera bat galdu dut. ☎ 761459.

Portugalgo marmolezko mahala salgai, Singer josteko makinaren basearekin. 15.000. ☎ 765231.

Egunero goizez Gastelzera joateko kotxea behar dut. ☎ 76 03 20.

Ebakigailu elektrikoa, pisu elektrikoa eta erakustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Butanozko Mepamsa estufa salgai. ☎ 76 01 13.

Kerosenoazko estufa salgai. ☎ 76 57 74.

R-18 diesel (familiarra) eta Ford Fiesta salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Kotxe zahar bat hartuko luke HIES Ekimena taldeak. ☎ 79 26 99.

8 hilabeteko ume batendako kotxea erosiko nuke. ☎ 765231 (gauzez).

Peltz eskalada ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

LANA

Gutxitu sikiko, elbarri edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 797759 (Fernando).

Pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Propaganda banatuko nuke. ☎ 764094 (Jaime).

Haurrak eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

Ingeleseko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 762290 (Ainhoa).

Haurrak/zaharrak zaindu eta etxe-ko lanak egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

Ingeles Filolojian lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

Latin, Euskara eta Franses klaseak. ☎ 76 02 99.

Hildakoak

Gregoria Gisasola Sorrondegi
urtarrilak 12, 86 urte
Josefa Cuesta Ots
urtarrilak 14, 73 urte
Veneranda Kortabarria Antia
urtarrilak 14, 70 urte

Jaiotakoak

Mikel Martinez Etxeberria
urtarrilak 8
Miren Urzelai Sierra
urtarrilak 11
Maidor Aguila Olazabal
urtarrilak 15



MEMESA




ARRASATE ☎ 76 42 22 • ARETXABAETA

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



-
-
-
-

Kutxa fundazioa

-
-
-
-

**gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte ekintza**